

Hitzordu

Liburu gaztea booktrailer lehiaketa



2000-2001. urtean Galtzagorri Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, Liburu Gaztea literatura saria sortu zuen. Harrez gero, ikasturtero egin da sariketa hau.

Lehiaketarako, Galtzagorri Elkarteko bazkidez osatutako batzorde batek irakurri ohi du urte horretan euskaraz 12-16 urte bitarteko gazteentzat argitaratutako guztia, eta liburu onenak aukeratzen ditu lehiaketarako. Batzorde honek DBHko maila bakoitzeko 4 liburu gomendatzen zituen orain arte. Ondoren, Gipuzkoako DBHko ikasleak izan ohi ziren liburuak irakurri eta epaimahaikide gisa jarduten zutenak. Ikasleek boto bidez aukeratzen zuten maila bakoitzeko izenbururik onena.

Bestalde, bozketan parte hartzen zutenen artean astebeteko bidaia kulturala zozkatzen zen.

2012-2013. ikasturtean Liburu Gaztea lehiaketa booktrailer lehiaketa bihurtu dugu. Hala, irakurketa teknologia berrieekin uztartu da. Ikasturte honetatik aurrera, beraz, ikasleek ez dute libururik onena bozkatuko; irakurritako liburuari buruzko booktrailerra egiteko eskatuko zaie.

Beraz, DBHko ikasleak dira liburuak irakurri eta horien sustapena egingo dutenak. Horrez gain, epaimahai lana ere egingo dute booktrailerrik onena bozkatu eta hautatzean.

Booktrailer lehiaketarako ere, Galtzagorri Elkarteko bazkidez osatutako batzorde batek irakurtzen du urte horretan euskaraz 12-16 urte bitartekoentzat argitaratutako uzta, eta maila bakoitzerako gomendagarriena hautatzen du.

Ikasturte honetatik aurrera ordea, DBHko maila bakoitzeko liburu bana gomendatzen da. Baina Galtzagorri elkartearen web orrialdean (www.galtzagorri.org) dagoen ezinbestekoen zerrendako liburuak ere oinarri har daitezke booktrailerrak egiteko. Beraz, azken urtean argitaratutako nobedeez gain, aspaldiko urteetan 12-16 urteko gazteentzat argitaratutakoak ere balia ditzakete ikasleek

booktrailerrak egiteko garaian. Beti ere, Galtzagorriko web guneko zerrenda horretatik aukeratzen badira.

Gutzira, 22 ikastetxek eman dute izena Liburu Gaztea booktrailer lehiaketaren lehenengo edizioan. Gipuzkoako 12-16 urte bitarteko hainbat gaztek bakarka ere parte hartu dute.

Web gunea

[www.galtzagorri.org](http://www.galtzagorri.org/liburu-gaztea/) web gunearen baitan Liburu Gaztea atala (<http://www.galtzagorri.org/liburu-gaztea/>) berri du booktrailer lehiaketara egokitzeko asmoz. Hala, bertan, lehiaketaren oinarrien eta berrikuntzen berri emateaz gain, bibliografia (aditu batzordeak hautatuko liburuak eta hauen fitxa didaktikoak eta ezinbestekotzat jotzen diren azken urtetako izenburuak), booktrailerra nola egin azaltzen duen atala, booktrailerra sarera igotzeko eta bozkatzeko aukera, eta bitartekarienezko aholkuak jasotzen dituen atalak ipini dira.

Bozketa

Ikasleen eginkizuna da aipatu liburu horiei buruz egindako booktrailerrik onena bozkatzea. Ez dute beraz libururik onena hautatu behar, baina bai booktrailerrik onena. Hala eta guztiz ere, edo-nork bozka dezake web gunearen bidez. Hori bai, pertsona bakoitzak boto bakarra eman dezake eta bozkatu nahi duenak irakurketa ohiturei buruzko galdetegi labur bati erantzun behar dio. Hala, gazteen irakurtzeko jarrera eta ohiturei buruzko datuak jaso nahi ditu Galtzagorri elkarteak.

Bozkatzen dutenen artean e-irakurgailu bat zozketatzen da.

Sariak

Liburu Gaztea booktrailer lehiaketak bi modalitate dituen orain, bietan ematen dira sariak.

Hala, **ikastetxeen modalitatean** saridun suertatzen diren lehendabiziko hiru booktrailerren egileek honako sariak jasoko dituzte, hurrenez hurren:

1. Igo saria jasotzen duen gelak abentura ekintza batean parte hartzeko aukera du.

2. saria jasotzen dutenek liburu-disko lote bat erosteko bonoa eskuratuko dute eta Klis-klasikoak liburu bilduma bat.

3. saria irabazten dutenek liburu-disko lotea erosteko bonoa eta Klis-Klasikoak liburu bilduma bat jasoko dituzte.

Aipatutako liburuen gaineko booktrailerrak egiten dituzten Norbanakoek, beste hiru sari eskuratzeko aukera dute:

Booktrailer onena egin duenak, e-irakurgailu bat jasoko du.

2. eta 3. saria jasotzen dutenek, liburu-diskoak erosteko bono bana jasoko dute.

Helburu nagusiak

Hauek dira Liburu Gaztea booktrailer lehiaketaren helburu nagusiak:

Irakurtzeko zaletasuna sustatu: gazteak irakurketara bideratzen ditu, baita irakurketa horren gaineko idazketa/sormen lan bat egitera ere.

Gazteen esparru naturala den **teknologia berrien eta literaturaren esparrua lotzen ditu.**

Gazteak **liburuen sustatzaile** bihurtzen ditu.

Euskal Haur eta Gazte Literatura sustatzen du: liburu horien inguruan gazteek egindako lan originalak egongo direlako denon eskura.